01 06
GERRA-GURDIAK VITORIA-GASTEIZEN

2015. urtera arte, 45. Garellano Infanteria Erregimentuaren egoitza Arakako base militarrean kokatuta zegoen, Vitoria-Gasteizetik gertu. Bere batailoietako bat “Flandes” IV/45 Gerra-gurdietako Infanteria Batailoi deitzen hasi zen, eta 40 bat M-48 A5E gerra-gurdi esleitu zitzaizkion. Horiek dira 2006. urteko ortoargazkian ikus daitezkeenak.



“Flandes” Batailoiari hornitu zizkioten M-48 A5E gerra-gurdiak 2006. urteko ortoargazkian ikus daitezke.

M48 A5E M48ren modernizatutako bertsioa da. Hari 105 mm-ko kanoi bat hornitu zitzaion, armamendu nagusi gisa eta baita 12 mm-ko metrailadore bat ere, bigarren mailako armamendu gisa. 6 kate zituen 6 martxa gurpilekin eta 3 euste arrabolekin, diesel motorra eta 49 tona pisuarekin. 4 kidek osatzen zuten tripulazioa, jarduera radioa 500 kilometrokoa zen eta abiadura, berriz, 50 km orduko.

Aipatutako gurdiak zaharregiak zirenez eta plan militarrak aldatu zirenez, Batailoiak 2010. urtetik aurrea, gerra-gurdi bakarra eduki zuen, baina, oraingo horretan, 8 Leopard II A4 esleitu zizkioten (Alemaniari alokatuta) eta izena berriz aldatu zioten Flandes IV/45 Infanteria Batailoiaren izendapenarengatik.

Leopard 2A4 gaur egungo gerra-gurdi bat da eta berezko ezaugarriak 120 mm-ko kanoi bat, 55 tonako pisua eta 500 kilometroko autonomia dira. Haren gehienezko abiadura 68 kilometro orduko dira.

Gerra-gurdiak galdu ondoren, 2016. urtean, Balio Anitzeko Brigada Operatiboetan oinarritutako Lurreko Armada berriz egituratzearen eraginez, Batailoiak Garellanoko Erregimentuan baren izateari utzi zion eta Zaragozara eraman zuten. Bertan, Leopard II E gerra-gurdiak berreskuratu zituen.



Ortoargazkia 2007. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi; PNOA.



Gurdiak antolatuta Arakako basearen barruan. Lehenengo hiru ibilgailuak TOAK dira (Transporte Oruga Acorazado); lehenengoa aginte ibilgailu bat da. Azken lerroak M48 A5E gerra-gurdiek osatuta dago.



Orotoargazkia 2009. Iturria: Gobierno Vasco / Eusko Jaurlaritza; geoEuskadi.



Ortoargazkia 2006. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. UTM 30N ETRS89 // X: 527542.2010 // Y: 4748429.8258 // Z: 532 m. Arakako base militarra (Araba). 2006. urteko hegaldian atzemandako 44 gerra-gurdi (lerro gorri baten bidez adierazita).Gurdien aurrean kokatutako sei ibilgailuak TOA dira. Horiez gain, gutxienez, bi berreskuratze ibilgailu ikus daitezke (garabiak) gerra-gurdietako zerbitzuetarako.



Leopard IIA4 Arakako basean (Vitoria-Gasteiz). Konpainia bakar batek erabili zuen 2010. urtetik aurrera Alemaniako jatorriko gurdi hau.